

Gizarte Ekimeneko ikastetxetako ordezkariakin batera eman dute prentsurreko gaur sindikatuek

**Abenduaren 11 eta 15 bitarte bost greba egun dituzte deitura. Gaurko
ekitaldian hitzarmena sinatzea ahalbideratuko duten balizko
proposamenak egiteko eskatu diete Kristau Eskola eta AICE-IZEA
patronalei**

Gaur ehun ordezkari inguru batu dituzte ELA, Steilas, CCOO, LAB eta UGT sindikatuek hainbat ikastetxez inguratuta dagoen Bilboko Bizkaia plazan. Argazki aldarrikatzaile bat atera dute eta prentsurreko bertan eman dute ondoren. Patronalei arduraz jokatzeko eta Hitzarmena berritzea ahalbideratuko duten eduki eta proposamenak egiteko eskatu diete.

Pasa den Azaroaren 27rako mahai negoziatzailea deitu zuten patronalek greba dinamikak behartuta. Azken mahai negoziatzailetik 9 hilabete ziren igarota (otsailaren 2tik). Mahaian ordea, ez zen aurrerapausorik egon, patronalek ez baitzuten Hitzarmena berritu ahal izateko proposamenik ekarri. Horregatik sindikatuek abendurako deitura dituzten bost greba egunekin aurrera egitea erabaki zuten.

Sindikatuek birritan bilera eskatu ondoren Hezkuntza Saila bilera egiteko prest dagoela adierazi digu. Itundutako eskolek dituzten finantzaketa iturrien gaineko gardentasuna kontrolatzeko ardurarekin batera langileen lan baldintza egokiak bermatzeko ardura berea ere bada. Hala adieraziko diogu bilera horretan eta gatazka hau bideratzeko esku har dezala eskatu.

Sindikatuek gogorarazi dute ikastetxe hauetako langileek 4 greba egun dituztela egiñak, lehena apirilaren 25ean eta hiru egun jarraian urriaren 17,18 eta 19an. Grebak jarraipen zabala ari dira izaten, %65ekoa batazbeste.

Azkenik, Hitzarmena berritzeko aukera emango duen proposamenik egon ezean urtarriletik aurrera grebak indartuko dituztela ere iragarri dute.

Aldarrikapen nagusiak lan zamak arintzeko neurrietan, sektore feminizatu eta prekarizatuenentzat hobekuntzetan, KPla bermatuko duten soldatua igoeretan, lanpostuak mantentzeko neurrietan eta Lanbide Heziketako edukietan oinarritzen dira. Euskara planak, berdintasun planak eta lan osasuna eta bereziki arrisku psikosozialak abordatzeko planak ere jomugan ditugu sindikatuek.

Euskal Herrian 2023ko Abenduaren 4an



Los sindicatos han dado una rueda de prensa hoy junto con las delegadas y delegados de los Centros de Enseñanza de Iniciativa Social

Tienen cinco días de huelga convocados, desde el 11 hasta el 15 de diciembre. En el acto de hoy han instado a las patronales Kristau Eskola y AICE-IZEA a hacer propuestas que permitan acordar el convenio

Los sindicatos ELA, Steilas, CCOO, LAB y UGT han reunido hoy a un centenar de delegados y delegadas en la plaza Bizkaia de Bilbao, rodeada de varios centros educativos. Han sacado una foto reivindicativa y han dado allí la rueda de prensa posterior. Han instado a las patronales que actúen con responsabilidad y propongan contenidos y hagan propuestas que permitan la renovación del Convenio.

La dinámica de huelgas en el sector obligó a las patronales a convocar una mesa negociadora para el reciente 27 de noviembre. Habían pasado 9 meses desde la última mesa negociadora (2 de febrero). En la mesa, sin embargo, no hubo avances, ya que las patronales no aportaron ninguna propuesta para poder renovar el Convenio. Por eso los sindicatos decidieron seguir adelante con las cinco jornadas de huelga que tienen convocadas para diciembre.

Tras dos peticiones de reunión por parte de los sindicatos, el Departamento de Educación se ha mostrado dispuesta a mantener una reunión. También es suya junto con la responsabilidad de controlar la transparencia sobre las fuentes de financiación de las escuelas concertadas, la de garantizar unas condiciones laborales adecuadas para los y las trabajadoras. Así se lo manifestaremos en dicha reunión y solicitaremos su intervención para encauzar este conflicto.

Los sindicatos han recordado que los y las trabajadoras de estos centros ya han realizado 4 días de huelga, el primero el 25 de abril y tres días consecutivos los días 17,18 y 19 de octubre. Las huelgas están teniendo un amplio seguimiento, con una media del 65%.

Por último, también han anunciado que si no hay una propuesta que permita renovar el Convenio intensificarán las huelgas a partir de enero.

Las principales reivindicaciones se centran en medidas para aliviar las cargas de trabajo, mejoras para los sectores más feminizados y precarizados, subidas salariales que garanticen el IPC, medidas para mantener los puestos de trabajo y contenidos de Formación Profesional. Los planes de euskera, los planes de igualdad y los planes para abordar la salud laboral y especialmente de los riesgos psicosociales también están en el punto de mira de los sindicatos.

Euskal Herria a 1 de diciembre de 2023



